

## Kantu jira Parte Zaharrean



Larunbat honetan, uztailak 17, Amara Berri eta Intxaurreondo Kantuz taldeen ekimenez, euskal-kulturen aldeko kantu jira egingo da Parte Zaharreko kaleetan. Kantu jira Bilintx denda aurretik irtengo da, 12:00etan. Karmengo jaia direnez gero, Parte Zaharrean bertso poteoa izango da 12:00etan. Hori dela eta, Konstituzio Plazaan bat egingo dute kantu jirako eta bertso poteoko kideek 13:00etan. Kaian bukatuko da kantu jira 14:00etan, eta bertan baziari herrikoia egingo da.



## erakusketak

- "Kantauri itsasoko kolooreak" argazki erakusketa. Aquarium-ean, uztailaren 18a arte.
- Ricardo Sanz artistaren pinturak Echeverria arte galerian (Zubieta 20), uztailaren 21a arte.
- "Rufino Tamayo. Obra grafikoa". Groseko Okendo kultur etxearen, uztailaren 24a arte.
- Miquel Carrera artista-ren "De lo geométrico a lo gestual" argazki era-kusketa ikusgai Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen

(San Juan 27), uztailaren 28a arte.

- "Artizarraren iragaketa" mikro-erakusketa. Miramongo Zientziaren kutxagunean, abuztuaren 15a arte.
- Koldobika Jauregi artista-ren "Klaustro" eskultura erakusketa Ekain galerian (Iñigo kalea, 4), abuztuaren 25a arte.
- Amable Arias pintorearen margoak. Galeria Diecisei aretoan (Artzain Onaren Plaza 16 behe), irailaren 4a arte.

- Isidoro Guinea pintorearen artelanak. Untzi Museoan (Kaia 4), irailaren 19a arte.
- Marta Cardenas artista donostiarren pinturak Koldo Mitxelena kultur-neko Ganbara aretoan, irailaren 19a arte.
- Manifesta 5 arte garai-kidearen erakusketa: San Telmo Museoan, Kursaaleko Kubo Aretoan, Koldo Mitxelena kulturunean eta Aquarium-aren sotuan artelanak ikusgai, irailaren 30a arte.

## Ning An eta EGO Kursaalean

Ning-An piano-jotzaile estatubatuaren ezagunak kontzertua emango du astelehenetan, uztailak 19. Kursaal leko Ganbara aretoan, 20:00etan. Euskal Herriko Gazte Orkestrak, aldiz, "Antso Handia erraztu" kantata eskaintzen du asteazkenetan, uztailak 21. Kursaal Auditorioan, 20:00etan.



## "Carmen", Antonio Canalesen arabera

Antonio Canales flamenko-dantzari eta koreografoak Bizet-en "Carmen" opera ezagunaren bertsio berezia dakar. "Carmen Carmela" ikuskizunean. Musika, dantza eta antzerkia ere uztartzen ditu koreografo sevillarrak. Dantza ikuskizun hori Antzoki Zaharrean izango da kusketa uztailaren 20tik 25a bitarte. Saio bat izango da egunean 20:00etan. Horretaz gain, 23 eta 24ean, ohiko saloaz gain, beste salo bat ere izango da 22:30ean.

